



## **ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA**

2014ko maiatzaren 14ko 18:10ean, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

\* Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik

- Aitor Arozena, Kiroleko zerbitzuburua, bileran buru izan dena Kirol zuzendari nagusia falta delako.
- Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
- Ramón Martiarena, Gipuzkoako Kirol Kontseiluaren idazkaria.

\* Gipuzkoako udalen aldetik

- Jesús Mari Erzibengoa, Errenteriako Udalekoa, Lezoko Udalak esku emanda.
- Aser Lertxundi, Zarauzko Udaleko zinegotzia.
- Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.
- Ramón Mujika, Elgoibarko Udalekoa.

\* Kirol federazioen aldetik

- Tetxus Barandiaran, Mendi Federaziokoa.

\* Ikastetxeen aldetik

- Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
- Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
- Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.
- Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa.

### *Banatuak dokumentazioa*

. 2013ko abenduaren 3ko bileraren akta.

. Arartekoak kexa espedientean emandako ebazpena.

. Errenteriako Udal Kirol Patronatuak Arartekoaren errekerimenduari emandako erantzuna, lehen aipatuak ebazpenaren aurretikoa.



*1) 2013ko abenduaren 3ko bilkurako akta irakurri eta onartzea*

Fernando Urienek eskatu du bere hitzetan bi zuzenketa egitea. Zuzenketa horiek egin, eta akta onartu egin da.

*2) 2013-2014ko ikasturteko eskola kiroleko jarduera programaren garapeneko gorabeherak*

Tetxus Barandiaranek aipatu du ezen, ikasturte honetan zehar, eskola kiroleko programako jarduera egutegiko mendi ibilaldi neurtuetako partaidetzak % 20 inguruko jaitsiera izan duela; jaitsiera hori ezin zaio, inondik ere, eguraldi txarrari egotzi. Azpeiti eta Azkoitiko kasuan, zehazki, antolatzaileek aipatu dute egun horretan futbol edota saskibaloiko teknifikazio jardunaldi batzuk zeudela. Mendi ibilaldi neurtuen eguna finkoa izaten denez, martxoko bigarren igandean alegia, eskatu du data hori errespetaraztea eskola kiroleko jardueren egutegietan. Orain arte, kirol kolektiboetako partidak larunbatetan izaten ziren, eta igandean ez zen arazorik izaten beste jarduera batzuekin batera gertatzeagatik.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du Aldunditik lan egin dutela kirol kolektibo nagusietako errendimenduan hasteko lehiaketetako egutegiak ez dezaten bat egin ez krosek egutegiko datekin ez mendi ibilaldi neurtuenekin. Zehatzago jakin behar da zer gertatu den.

Fernando Urienek esan du bere zonako mendiko irteerak beherantz doazela, eta teknifikazio jardunaldiak, berriz, gorantz. Mendi irteerak larunbatetan programatzea ere pentsatu dute.

Pako Urrestarazuk gauza beraren inguruan jardun du: igandeetako jarduerak behera ari dira egiten, eta teknifikazioko jarduerak gora.

Tetxus Barandiaranek irtenbide bat eskatu du berearentzat, kontuan harturik urtean zehar Gipuzkoa osorako bi irteera komun besterik ez direla programatzen: mendi ibilaldi neurtuak eta finalistaren eguna.

Imanol Fernández de Larrinoak esan du datorren ikasturtean, jardueren egutegiak egiten dituztenean, berriro azpimarratuko dela kroserako eta mendi irteerarako gordetako datak errespetatzearena.

Fernando Urienek adierazi du aurten, Zarautz inguruan, oso harrera ona izan duten bi berrikuntza sartu dituztela:

- Sei jardunaldiko programa bat jarri dute abian: arraunketako bi jardunaldi, eta txirrindularitza, softbol, mendi eta surf jardunaldi bana, kimu eta benjamin mailetarako, arrakasta handiz. Beste kirol modalitate batzuk praktika daitezen lortu dute. Erantzuna bikaina izan da gurasoen, eskolaumeen eta boluntarioen, klubuen eta jardunaldietan parte hartu duten beste guztien aldetik. Haserrealdiren bat edo beste izan da, baina dena ondo joan da. Jardunaldiei buruzko xehetasun batzuk aipatu ditu.



- Kirol egokituko jarduera bat, hainbat kirol modalitatekin. Publikoki eskerrak eman dizkie jardunaldi horien antolaketan parte hartu duten pertsoniei.

Pako Urrestarazuk kontatu duenez, esku pilotan benjamin batzuk ez dira lehiaketetara joan, eta Nafarroara joan dira jokatzera. Egoera horretan dagoen haur kopurua gero eta handiagoa da. Gipuzkoako Pilota Federazioarekin hitz egin zuen, horretan sartuta dauden klubei gutun bat bidal diezaieten. Ez da jende asko baina, pitinka-pitinka, gero eta gehiago.

### *3) 2014/2015 ikasturterako eskola kiroleko programaren zirriborroa*

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du zirriborroa laster bidaliko dutela. Aldaketa bakarrak datetan izandakoak dira. Bolo eta Toka Federazioa sartu da, kirol modalitate hau bultzatzeko gauzak egiteko gogo handiz. Eskola kiroleko programan sartuko den hastapen jardueretarako eskaintzaz gain, herri eta auzoetako festak aprobetxatuko dituzte modalitateari zabalkunde emateko.

Arku-tiroak aurreko ikasturtean zehar jada egin zuten hastapen programarekin jarraitu behar du. Aipatu egin ditu, halaber, ikastetxe batzuetan garatu dituzten jarduerak, eta Araban eta beste toki batzuetan zenbait txapelketatan ere parte hartu dutela.

Gimnasia Federazioak aldaketa batzuk sartu nahi ditu programako bere jardueretan.

Beti bezala, maiatzaren amaiera arteko epea izango da datorren ikasturteko programan sartzeko jarduerak proposatzearen.

### *4) Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko hainbat kide aldatzeko hauteskundeak*

Imanol Fernández de Larrinoak esan du prozesua otsailean abiatu zela baina, zergatik izan den ez badaki ere, kontua da bakar-bakarrik hiru kirol federaziok aurkeztu dutela Kontseiluan sartzeko hautagaitza. Beraz, ikastetxe eta udal estamentuetan hautagaitzak aurkezteko prozesua berriro abiatuko da.

Aitor Pérezek esan du bera jarraitzeko prest dagoela, baina informazioa iritsi zitzaionean ez zeukala garbi zer egin behar zuen, hautagaitza berriro aurkezteko.

Badirudi igorri zituzten gutunak iritsi zirela, baina ez da hautagaitzarik aurkeztu, federazioen estamentuan izan ezik.

Imanol Fernández de Larrinoak adierazi du ezen, agintaldia errepikatzeko aukera hor delarik, orain kargua utzi behar dutela Orereta Ikastola –Errenteria– (Bidasoa-Oiartzun) eta Joxe Miel Barandiaran –Ataun– (Goierrri-Oria) ikastetxeek; Hernani (Donostialdea), Zarautz (Urola-Kosta) eta Elgoibarko (Deba) udalek; eta Kirol Egokitu eta Karate federazioek.



### *5) Eskola kiroleko monitore ikastaroa*

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du dagoeneko egin dela 2013-2014ko ikasturte honetako bigarren txanda. Txanda bien artean 120 ikasle gipuzkoar baino gehiago izan dira.

Irakaskuntza teorikoan online ematen diren 20 orduak egonkortzen ari direla dirudi. Praktikek, modalitate kolektibo nagusietan, Real Sociedad Fundazioaren monitoreak prestatzeko ikastaroen eduki bera dute; beraz, ikastaro hauek egin dituzten ikasleei baliozkotu egiten zaie praktikaldia. Beste modalitate batzuetan, esaterako patinajea, errugbian, palan..., praktikek eduki espezifikagoak dauzkate. Susana Santorrek ikasleen profila zein den galdetu du.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun dio gehienak 18 eta 25 urte bitartekoak direla.

Gainera, adierazi du oreka lortu dutela irakaskuntzaren karga teorikoaren (20 ordu) eta praktikoaren (12 ordu) artean; horregatik, uste du monitore ikastarorako formatu hau zuzena dela, monitoreen oinarrizko prestakuntza bat emateko.

### *6) Kirol hastapenerako unitateak: Arartekoaren ebazpena*

Imanol Fernández de Larrinoak bertan direnei galdetu die zer iruditu zaien kontseilukideei aurrez bidali zaien ebazpena.

Jesús Mari Erzibengoak gertatua azaldu du. Ebazpena arte oso garbi zeukan ikastetxeko eskola kiroleko jardueretan izena eman gabeko eskolaumea ezin zela kirol hastapeneko unitate batean (kirol eskola batean) sartu. Eta oso kasu gutxitan gertatua zen betekizun horri itzuri egin izana. Erreterian, eskoletako jarduerak baimentzeko, arduradunei bi galdera egiten zaizkie: euskaraz badakiten irakaskuntza horretan aritzeko, eta eskolako ikasleak dagokien ikastetxeko eskola kirolean izena emanda dauden. Galdetu du ea zerbait egin daitekeen ebazpen honen aurrean, eta uste du Arartekoari erantzun egin beharko litzaiokeela, egoera zertan den erakustearren.

Pako Urrestarazuk esan du gomendio bat dela, arau juridiko baten baliorik gabea.

Fernando Urienek proposatu du Kontseiluak, ebazpenak eragiten dion kontsulta organoa izaki, gutun bat bidaltzea Arartekoari.

Ondoren, kontseilukideen artean eztabaida bizia izan da gai honen inguruan.

Azkenean, Aser Lertxundik proposatu du gai honekin sor daitekeen tentsioa jaistea eta klubak eta ikastetxeen artean kontsentsuak bilatzea, ebazpenaren gai izan den kasua hedatu egin daitekeelako.

Ramón Martiarenak proposatu du Arartekoari gutun bat bidaltzea, horren bidez ikustaraztearen eman duen gomendioaren desegokitasuna, eskola kiroleko lege printzipioen kontra baitoa. Hori guztia kontsentsuak bilatzeko ahaleginak baztertu gabe.

Tetxus Barandiaranek eskatu du Foru Aldundiari gaiari buruzko txosten juridiko bat eskatzea, eta ondoren Kontseiluak onartutako gutun bat bidaltzea.



Azkenean erabaki dute, Foru Aldundiak egiten duen txostena ikusirik, Arartekoari idazki bat bidaltzea, Ramón Martiarenak proposatutako terminoetan eta Eskola Kirolaren Lurralde Kontseilu honen onespenez.

### *7) Mugikortasun iraunkorreko plana*

Aitor Arozenak azaldu du garraio publikoaren erabilera hedatzen ari dela, eskola kiroleko programako lehiaketako jardueretara joateko. Elementu erabakigarria futbol lehiaketetara zabaltzea izan da. Aipatu beharreko beste gauza bat garraio txartelaren erabilera da.

Gaiari buruzko hainbat aipamen egin dituzte. Hala, esan dute Oarsoaldeko desplazamendu batzuk bizikletaz egiten dituztela, hori ere garraiobide iraunkorra baita.

Era berean, aipatu dute sarritan autobus bat baino gehiago hartu behar izaten dela, esate baterako, eta horrek zaildu egiten duela mugikortasun iraunkorra.

Fernando Urienek esan du Zarautzen autobus linea ez erregular bat muntatzea erabaki dutela, lehiaketa egunetarako, hainbat geltokiz (Orio eta Getaria artean) eta ordubeteko maiztasunez.

Aitor Arozenak esan du hori mugikortasun plan bat dela, eta Foru Aldundiak diru laguntza eman lezakeela.

Tetxus Barandiaranek iradoki du interesgarria litzatekeela zona bakoitzeko garraio enprekin harremanetan jartzea; izan ere, enpresak izan daitezke garraio arazo hauetarako irtenbideak ematen dituztenak, bai kirol modalitateen arabera bai eskualdeen arabera. Seguru daude enpresek proposamen egokiak egingo dituztela, gaia ezagutzen dutelako eta asteburuetan itzulkin ekonomiko ona lor dezaketelako.

### *8) Bestelakoak: zigor espedienteak, etab.*

#### *a) Zigor prozedurak*

Ramón Martiarenak aipatu egin ditu 2012/2013 ikasturtean tramitatutako hiru zigor espedienteetan izandako zigorrak; horiek kasu batzuetan, eta Kirol Legea aplikaturik, zigor ekonomiko garrantzitsuak zekartzaten. Azkenean, diru zigorrak etenik uztea erabaki zuten.

Antiguokoren kasuan, hiru espedienteetako bitan izan baita inputatua eta zigortua, errendimendu lehiaketetako fase finaletatik kanpo geratu da, haur maila handi, haur maila txiki eta kimu mailan zehazki. Klubak errekurtsua jarri du, bai zigor espedienteetako ebazpenei bai fase finaletatik kanpo utzi dituzten errendimenduko lehiaketetarako gonbidapenei dagokienez; azken kasu honetan kautelazko etetea eskatu du klubak, baina ez da eskaera hori onartu.

Hau da, gonbidapenerako foru aginduak fase finaletik kanpo uzte horrekin gauzatzea ez denez eten, denboraldiaren une honetan badirudi ezen, auzitegien pronuntziamentua dena dela, klub errekurtsogilearen asmoak bertan behera geldituko direla, helegitearen xedea desagertzeagatik.



Zigor prozeduren kasuan, gai hauek aztertu behar zituen organo judiziala zehaztearren eskumen arloan izandako gorabehera luze batzuen ondotik (izan ere Donostiako Auzitegia izan zitekeen -azkenean gertatu den moduan-, edo Euskadiko Justizia Auzitegi Gorena, zeharka bada ere errekurtsioa aurkeztu baitzaio eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Foru Dekretuari), Foru Aldundiari eskatu egin zaizkio zigor prozedura bietako espediente administratiboak. Honek guztiak esan nahi du auzia bera une hauetan abiatuko dela.

*b) Lan ikuskaritzak*

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du ezen, Araban, Lan Ikuskaritza zorrotz hasi dela oro har eskolatik kanpoko jardueretan eta, zehazki, eskola kiroleko jardueretan parte hartzen duten monitoreek eta beste batzuek ematen dituzten zerbitzuak kontrolatzen. Gai honetan badirudi bi irtenbide egon daitezkeela: monitoreak aginduak eta ordain ekonomiko bat ematen dizkionarekin duen harremana lan harremana izatea, edo bestela hori boluntariorik gabe jardueren bat izatea.

Susana Santorrek esan du boluntario elkarte bat sortu dutela, eta egin behar dutena dela justifikatzea ordain ekonomikoak dietekin eta telefono, garraio eta kirol arropetan egindako gastuekin bat datozela; hau da, boluntariorik gabe lanagatikoko konpentsazioak dira.

Zarautzen denboraldi amaieran sariak ematen dituzte.

Hernanin 110 euro ordaintzen dizkiete hilean, eta inork ez du horretarako eragozpenik adierazi.

*c) Eskola kiroleko kirol diziplinari buruzko dekretua*

Imanol Fernández de Larrinoak aipatu du araudi horren aplikazioan desoreka batzuk gertatzen ari direla. Edonola ere, jarraipen bat ari dira egiten, ikasturte amaieran balorazio bat egin eta egoki iritzitako aldaketak sartu ahal izatearren.

*d) Federazioen kontrol teknikoa*

Imanol Fernández de Larrinoak adierazi du hobetzeko gauza asko daudela kirol federazioek eskola kirolean egiten duten kontrol teknikoari dagokionez. Esate baterako, arbitrajeen gaia nahiko pobrea da. Ez da gaiak behar duen interesa jartzen.

*e) Kirol zerbitzuen BEZA*

Gai hau kirol zerbitzuen prestazioa BEZaren pean ote dagoen klub batek egin duen kontsulta batetik sortu da.

Ramón Martiarenak azaldu du ezen, BEZaren zerga tasen azken aldaketa baino lehen, pertsona fisikoei emandako kirol zerbitzuak salbuetsita zeudela zerbitzu horiek ematen zituztenak zuzenbide publikoko erakundeak, kirol federazioak, komite olinpiko edo



paralinpikoak eta izaera sozialeko entitate edo establezimendu pribatuak zirenean. Hemen klubak sartuko lirateke, onura publikoko deklarazioa lortu eta Ogasunean BEZetik kanpoko entitate gisa alta emanez gero. Beste entitate mota batzuek emandako kirol zerbitzuek BEZ tasa murriztua zuten (orduan % 18koa).

Orain, kirol zerbitzuen prestazioa salbuetsirik dago edo % 21eko tasa orokorra du.

*f) Diru laguntza eskaerak eta beste tramite batzuk baliabide telematikoz aurkeztea*

Aitor Pérezek aipatu egin ditu dokumentuen aurkezpen telematikorako izan dituen zailtasunak. Nola esekitzen dira dokumentuak diru laguntzen aplikazioan?

Aitor Arozenak azaldu dio eskola kiroleko lehiaketetan desplazamenduetarako eta kirol materialerako diru laguntzen kasuan, diru laguntza emateko beharrezko datuak eskola kiroleko izen ematean aplikazioan daudela jada, eta ez direla berriro errepikatu behar kasuan kasuko diru laguntza eskaera kudeatzeko unean.

Fernando Urienek ikastetxe publikoetan gertatzen den arazo bat planteatu du; izan ere, IFK propiorik ez daukatenez, datuak sartzen dituen pertsonaren IFKrekin egin behar da eskaera, eta hori diskriminazio bat da, IFK propioa duten ikastetxe pribatuen kasuan gertatzen denarekiko.

*g) Izen emate fitxak bidaltzea*

Aitor Pérezek galdetu du zergatik bidali behar diren eskola kiroleko jardueretan izena emanda dauden eskolaume guztien fitxak, gero bakar-bakarrik Gipuzkoako Txapelketetara doazenei eskatzen bazaie lizentzia bideratu eta argazkiduna.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du ezen, beste kontsiderazio batzuk alde batean utzita, lan txikiagoa dela lizentzia guztien emisio masibo eta zentralizatu, eskualdeetako bulegoetan bakar-bakarrik Gipuzkoako Txapelketetara doazen eskolaumeena inprimatzea baino; izan ere, horien izenak bakar-bakarrik ikasturte amaieran ezagutzen dira, eta horrenbestez nahiko zaila da ikasturtearen une honetan lan zama horri aurre egin ahal izatea.

*h) Kirol eskoletarako baimenen luzapenak*

Susana Santorrek planteatu du ezen, kirol eskolen lehen baimenerako eskola kirolaren toki egituraren adostasuna eskatzen den moduan, ez dela gauza bera egiten luzapen eskaeren kasuan; hala, aipatu egitura horiek ez dakite urte batetik bestera zer aldaketa izan den, aldaketarik izan bada.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du araudiak ez duela ezartzen eskola kirolaren toki egiturek bere adostasuna berretsi behar dutenik luzapenak tramitatzeko unean. Beraz, hori ezin da derrigorrezko tramite bihurtu, non eta ez den araudi aipatua aldatzen. Dena den, Gipuzkoako Foru Aldundiak luzapen eskaeren edukia bidal diezaieke toki egitura horiei, informazio gisa, eta egiturak ez badaude ados luzapen eskaeretako alderdiren batekin bere adostasuna kentzea planteatu lezakete, hain zuzen duela bi ikasturte Donostiako kasuan gertatu zen moduan udalerrri horretako futbol eskolekiko.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 21:00etan amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria